



I. Dantza topaketa Manuel Lekuonan, Kukukak antolatuta- Emanaldi ederra eskaini zuten larunbat eguerdian Donostiako Udala Musika eta Dantza eskolak, Kukui gazte-formakuntza taldeak eta herriko Kukuka dantza eta antzerki eskolak. Dantza tradizionalak eta garaikideak uztartu zituzten, askotariko musika estiloak eta kolorez beteriko jantziak lagun. Adin tarte guztiak egin zuten dantzan, gaztetxoetatik hasita helduetara arte eta dantzari amateur izanda ere lan zoragarriak egin daitezkeela erakutsi zuten denek. Talde guztiak euren emanaldiak amaitzean, Maider Oiartzabal Kukukako irakasleak eskerrak eman eta hurrengo urtean elkar ikusiko dutelakoan dantzaz gozatzeko aholkua luzatu zien herritarrei. Gainera, dantzari eta irakasle guztiak Kukukaren kamiseta bana jaso zuten opari. Bestalde, apirilaren 29an (Dantzaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez), eskolako ikasle, irakasle eta parte-hartu nahi duten herritar guztiak Kukukaren abestia dantzatzeko aukera dute arratsaldeko 18:00ean. Astelehenean Kukukaren kamiseta eramatea gomendatu dute antolatzaileek.

3 UDALTOP

Udaletako euskara zerbitzuen topaketa izan da herrian

Amaitu da Udaltop eta 170 lagun baino gehiagok parte-hartu du Manuel Lekuonan egindako hitzaldietan. Bertan izan dira besteak beste Udaleko Euskara Zerbitzuko lankide eta teknikariak, "Nola aktibatu herritarrek udalarekin euskaraz jarduteko?" galderari erantzun asmoz.

5 KULTURA

"Mantxurriano abertzale" bat Semblanten hizketan

Jon Maia bertsolariak hitzaldia eskaini zuen ostiralean Semblante Andaluz elkartearen, gaztelaraz. Ikusmin handia piztu zuen herritarrengan eta jendetza bildu zen Atsobakarreko egoitzan. Ama extremadurarra, aita zamorarra eta semea bertsolaria. Bizipen pertsonalak kontatu zituen.



Ostiralean maiatzaren 3an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Jarrai gaitzazu txintxarri.info web orrialdean edo facebook edo twitter kontuetan.



Zuregandik hurbil
Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2. (Lehengo Doble J)

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
(Lehengo Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

TAILERRA
Ibaiondo, 4
erdisotoa 5-A

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com
www.facebook.com/VentanasAlcar










Jarrai gaitzazu Facebooken! gure jarraitzaile artean, laister hasiko gara opariak banatzen




Adituak dio



Jon Martin
LAB Michelin

Maiatzak 1

Maiatzaren Lehena 1889 urtean II. Internazional Sozialistak Chicagoko martiriak gogoratzen borroka egun bezala izendatu zuenetik, langileen nazioarteko egunak bilakaera handia izan du gaur egunera arte.

Egun, askorentzat beste jai egun batean bihurtu da soilik, beste askorentzat ordea, oraindik aldarrikapen eguna ere izaten jarraitzen du.

Gaur egun langile klaseak, "merkatuek" kontrolpean dituzten politikarien eskutik jasaten ari den eraso erabatekoa da. Gizarte babeserako sistema publikoaren (pentsioa) suntsiketa, osasun eta hezkuntza sistema publikoen prekarizazioa, laneko legediaren desarautzeak eragindako lan prekarietatea, langabezia, desjabezteak, ustelkeria ...

Guzti honek inoiz baino beharrezkoagoa egiten du klase borrokara lotzea, gure bizi baldintzak eraso neoliberalaren aurrean defendatzeko eta gizarte justuago baten eraikuntzan sakondu ahal izateko.

Maiatzaren Lehena beti izan da erreferentea langileen eskubideen borrokan eta momentu honetan erabateko gaurkotasuna hartzen du, garbi baitago klase borroka indartu eta zabaldu beharra duela, erreferente zaharrik berrituz eta indartzuz eta berriki irekiz.

Ez dugu lan makala; burujabetzaren bidetik eta klase ikuspegitik Euskal Herria libre eta justu bat eraikitzea. Helburura iristeko eskailera horretan Maiatzaren Lehena izan dadila beste maila bat, hurrengo maiatzak 30 ...

Zorion agurrak



Beatriz

Zorionak "Maki"! Aurtengo bizkotxo bigunbiguna izango da. Muxu pila-pila!



Ander eta Jon

Gure txapeldunak dagoeneko 6 urte!!! Urte askuan!!!!



Oihan

Zorionak! Zure 4.urtebetetzean! Muxu handi bat zure osaba eta izebaren partetik!



Maialen

Zorionak polita!!! Eta 8 muxu ederrak, Leire, aitona- amona eta familien partetik.



Salma

Zorionak! Maite zaitugu! 4 muxu potolo aitaxo eta amatxoren partetik!



Aitor

Zutaz ez gara ahaztu! Zorionak eta muxu handia Pepi eta Alfredo aitona-amonen partetik.



Mattin

Zorionak aita-ama eta Marenen partetik.



Txiska

Zorionak Txiska! Zure lagun hoberen partez. Maite zaitugu! muxu handi bat!



Javi

Zorionak aitaxo Xabier, Gaizka eta amatxoren partez. Muxu potolo bat.



Enaitz

Zorionak bihurri!! Aimar, amatxo eta aitaxoren partetik. Muxu handi bat.



Sara

Zorionak xagutxo, txokomarrubizko 5 muxu. Famili guztiaren partetik.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Axier Peña Curiel, apirilak 18an.
- Lucia Otero Carre, apirilaren 17an.
- Lur Puga Ibeas, apirilaren 17an.

Heriotzak

- Flora Blazquez Fraile, apirilaren 22an, 77 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Astelehena, 29 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 30 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 1 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 2 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Ostirala, 3-Igandea, 5 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 6 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 7 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 8 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 9 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Erantzuten al du langileriak?

Hitz eta pitz



Saturnino Hernandez

Onartezina da hainbeste ustelkeria, bankuei dirutzak ematea, herritarrek lanik gabe eta etxetik kanporatuak... Erantzuna gogorragoa izan beharko litzateke eta koroarengaino iritsi. Nahi duten guztia lapurtu dute. Langileen erantzun sendo bat espero dut. Greba beti izan da tresna ona. Bestela ez genuke sekula ezer lortuko. Berriro zergak igoko dizkigute, etxebizitzekin lau aberastu dira eta orain denok ordaindu behar dugu.



Iñaki Letamendi

Dagoen egoera ikusita, motel ikusten dut. Orain dela 30 urteko egoerara itzultzen ari gara, pixkanaka, abian jartzen ari diren erreforma, neurri eta murrizketekin. Beraz, inoiz baino baliagarriagoa da mobilizatzea. Hobe, greba, neurri gogorra bada ere, askotan beharrezkoa dela ikusiko balu langileak. Eta orain inoiz baino gehiago. Eskubideak berreskuratzea zaila izango da. Ez dizkigute itzuliko, berriro borrokatu beharko da.



Maria Jesus Nogues

Bianchin borroka handiak egin eta gauza asko lortu genituen, adibidez, gizonen soldata berdina izatea. Orain iruditzen zait guk lortutako guztia galdu egin dela. Eta ez hori bakarrik, jendeak onartu egin du edo etsita dago. Erantzuna motza da, baina egoera gogorra da eta pena ematen dit. Ez dakit zer egingo nukeen beraien lekuan. Lehen lantegi batetik bota eta ez zenuen arazorik, lana izango zenuen beste batean. Orain ez.



Jon Urreta

Manifestazioak ondo daude, baina, lana nahi duenak, mugitzen bada, lortzen duela uste dut, etxean kexatzen egon ordez, goizean goiz lan bila joanez gero. Hori bai, edozein lan izango da. Gero, lan baldintzak ere kontuan izan behar dira. Ez nago ados murrizketekin. Gainera nagusiek erraztasunak dituzte langileak kalera-terako, hainbat urte lanean pasa eta gero ere bai. Horren aurrean, jendea kalera atera beharko litzateke.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakin Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I., Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakin.com
administrazioa@ttakin.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtar, Edu Galardi

Informatikoa:
Xabier Arnoz

Euskara zerbitzuen topaketa

Nola aktibatu herritarrak udalarekin euskaraz jarduteko? eta Zer eta nola egin euskaraz ikus gaitzaten? izan dira hausnarketarako gaiak

Ostegun eta ostiralean egin zen Udaltop euskara teknikarien topaketaren bosgarren edizioa Manuel Lekuonan kultur etxean. Bertan 170 parte hartzaile baino gehiago izan ziren eta 11 hitzaldi entzun eta talde lanean aritzeko aukera izan zuten.



Udaltopen hitzaldia eskaini zuten ostiralean Aitor Unanue eta Marifer Gorostizak.

Aurtengo edizioari Eduardo Apodakaren hitzaldia eman zion hasiera. Psikologia Sozialaren ikuspegitik, euskaraz jarduteko aktibazioari egiteko hainbat ekarpenen inguruan aritu zen.

Ondoren, Kristina Pavok, Udaletak hizkuntza erolden esperientzia kontatu zuen; Maite Barreñak Udaltop Politika "Feminismoz bustiz" eta goizeko saioa bukatzeko Bittor Zarrabeitia eta Karlos Gorriñdo, Udalak euskaraz eta... zuzen zergatik ez? goiburuean jardun zuten herritarren eta administrazioaren artean euskararen erabilera areagotuz elkarrengi- na bilatzeko lanaz.

Komunikazioa

Iban Arantzabal, Goienako zuzendaria izan zen oholztan ere. Komunikazioa garen ala ez, gutako bakoitza enpresa zein erakundearentzat subjektu komunikatzaile garen eta horrek izan dezakeen eragina-

ren inguruko hausnarketa plazaratuz. Ondoren, Maite Bidartek, Nekane Zinkunegik eta Ainhoa Lasak eskaini zuten, Gureaz blai! euskaldunak aktibatzeko irratsaioaren inguruan.

Maite Etxaniz eta Aitziber Arnaizek hartu zuten lekukoa eta kontratazio publikoak erakundearen egitekoan duen garrantziaz hausnartu zuten. Lehenengo egunari amaiera eman zioten herriko Karlos Altunaren eta Aitor Unanue teknikariak. Kirol ikastaroetan euskararen presentzia areagotzeko egindako lanaz. "Buruntzaldeko beste herri batzuetan ikastaro gehiago ematen dira euskara hutsean, baina Lasarte-Orian pixkanaka joan gara eta datorren ikasturterako gehiago eskaini nahi dugu". Urteetako lanaren ondorio da kiroldegiko monitorea egun elebidunak izateak.

Ostiralean berriz, Marc Biosca, Plataforma per la Llen-

gua taldeko kidearekin, hasi ziren hitzaldiak. Ondoren eman zuten hitzaldia Aitor Unanue eta Marifer Gorostiza, Udaltop Euskaraz Zerbitzukoek.

Euskaraz Zerbitzuko kideen ustez, ez dago zalantzarik, jendaurreko langileak erakusten dio herritarrari "bere hizkuntza nola dantzatzea". Herritarrak udalarekin euskaraz jardutea aktibatzeke zer egin jakiteko, onena jendaurreko udal langileei eurei galdetzea zela pentsatu zuten eta hori da egin dutena.

Unanuek "bigarren hitzaren" garrantzia goraiatu zuen "kaixo ondoren datorrena da, herritarrak orduan gaztekerara joan behar du, langileak ahalgin bat egin dezake euskaraz jarraitzeko ala ez".

Elhuyarrek Nerea Zubiak eta Maddi Etxebarriak eskaini zuten azken hitzaldia eta talde-lanari ekin zioten. Bukatzeko esketxa egin zuten Estitxu Garmendia herritarrak.

M^a AUXILIADORA ELKARTEA Lourdesera bidaia

Urtero legez, M^a Auxiliadora elkarteak lagunek Lourdesera bidaia antolatu dute.

Urteerako maiatzaren 12an izango da. Autobusa goizeko 10:00etan aterako da Lasarte-Oriatik eta hiru geltoki izango ditu, Kotxeraseko geltokia, Jubilatuen geltokia eta Kale Nagusia 3-ko geltokia.

Bidaia 27 euro balio ditu eta informazioa jaso edo izena eman nahi duenak honako telefonoetara dei dezake, 943 360 042, 943 364 296 edo 943 363 675.

OSTALARIEN ELKARTEA

Lasarte-Oriako II. Mus txapelketa

Lasarte-Oriako Ostalarien elkarteak aurten ere Mus txapelketa antolatu du.

II. Mus txapelketa honetan taberna kopurua handitu da, 3 berri sartu dira eta beraz, 10 tabernatan izango dira lehiaketak. Abendu, Buenetxea, Galizia, Garakari, Ilargi, Gure Etxea, Artizar, Arkupe, Txanpa eta Andatzen maiatzaren 7tik aurrera, bikotekako mus txapelketa honetako norgehiagokak ikusi ahalko dira.

Final handia ekainaren 22an izango da Okendo plazan eta iaz bezala, mus azkarreko txapelketa izango da egunean bertan.

Txapelketako antolatzaileek jakitera eman dutenez, irabazleek 600 euroko saria eramango dute, txapelduen ordeek 400 euro, hirugarren sailkatuek 300 euro eta 100 euro laugarrenak.

Izena ematea txapelketa antolatzen lagunduko duten tabernatan egin behar da eta 30 euro ordaindu behar ditu bikote bakoitzak. Epea maiatzaren 2 edo 3a arte egongo da irekia.

OSTADAR SKT

Giroko Porra

Giroa maiatzaren 4ean hasiko da eta berarekin batera Ostadar SKT-k urtero antolatzen duen Txirindularitza Porra.

Porra tiketak ohiko tabernetan daude dagoeneko eta 7 euroren truke parte hartu daitezke. Txirindularien zerrendak eta sailkapenak www.ostadarskt.org webgunean daude eskuragarri. Hauek beteta etengabeko epea larunbatean, maiatzaren 4ean, 21:00etan amaitzen da.

Sariei dagokionez, sailkapen orokorreko lehenak 360 euro irabazi ditu, bigarrenak berriz, 180 euro eta etapako irabazleak, 60. Urtero bezala zazpi urdaiazpiko zozketatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean eta zortzigarrena azken sailkatuak eskuratuko du. Eta sari berezia dago tabernariarentzat ere. Puntu gehien batzen dituen taberna bi pertsonentzako afari bat irabaziko du Txartel Txoko jatetxean.

Azkenik, Giro eta Tourreko onenak 1000 euro irabaziko ditu.

ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEA

Lasarte-Oriako Ernai aurkeztu dute

Asteburuan ekin diote Lasarte-Oriako Ernai aurkezteari. Ostiral arratsaldean azken hamarkadako gertakari esanguratsuenetakoak biltzen zituen bideo bat ikusi zuten, Egunkariaren itxieratik hasita 2001eko irailaren 11ko atentatuaren inguruan. Bideoa ikusi ostean bakoitzak sentitutakoa paperean idatzi eta lagunekin konpartitu zuten hainbat ondorio atera asmoz. Larunbat goizean berriz, Auzolan taldeko hiru kidek hitzaldia eman zuten hamabost lagunen artean eta besteak beste, kooperatibismoa, moneta propioa edota burujabetza ekonomikoa izan zituzten mintzagai. Ostean bazkaria egin eta arratsaldean Venezuelaren inguruko dokumentala ikusi zuten.

Maiatzaren 1ean berriz, 13:30etan Xirimirin aurkezpen bazkaria eta 17:00ean Okendon "egin zazu behar duzuna!" lelopean musika, malabareak etab. egiteko aukera izango da. Ernai gazteak ekintzetan parte-hartzera gonbidatzen ditu.



Etxegabetzei aurre egiteko protokoloa

Lasarte-Oriako Udalak etxegabetzei aurre egiteko protokoloa onartu zuen aho batez Gizarte Zerbitzuetako batzordean. Ohar baten bitartez, egoera honen aurrean Lasarte-Oriako Udalak hartuko dituen neurriak jakin arazi ditu.

Udala arazo hau pairatzen duten herritarrei irekia dago. gzerbitzuak@lasarte-oria.org helbidera edo Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete kalte-tuek. Hau egin ostean, informazio, laguntza juridikoa eta lehen arreta eskainiko zaiela azaltzen du Udalak.

Prozedura martxan duten herritarrei dagokionez, bankuarekin harreman bideak ireki eta erraztuko die Udalak eta etxebizitzarik gabe geratu diren herritarrei premiazko irtenbidea eskaintzen saiatuko dira. Etxebide eta Vinsarekin

elkarlana bultzatu eta etxebizitzak hutsik dituzten banku eta higiezin enpresei ardura exijituko die horretarako.

Gainera, altzariak galtzeko arriskua duten herritarren kasuan lokal bat uzteko aukera aztertuko du.

Elkarlana eta salaketa

Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak Lasarte-Oriako Stop Etxekaleratzeak elkartearekin lan egiteko duela jakitera ematen du. Eta gaiaren lanketarako udal batzorde berezi bat egiteko aukera irekia uzten du.

Honela, Udalak ez du etxebizitzetan parte hartuko eta prozedurak gauzatzeari uko egiten dieten udal langileei babesa emango die.

Era berean, herrian etxebizitzeko prozedura bat gauzatzen den bakoitzean etxebizitzak

eskubidearen alde eta etxebizitzak aurreko kontzentrazioa egingo da.

Hau guztiaz gain, Udala Kutxabank-eko partaide den heinean etxebizitzak bertan behera utzi dituzten eskatzen dio.

Era berean, Udalak harremanetan dagoen kreditu entitateen jarrera aztertu eta sailkapena egingo du. Horren ostean, etxebizitzak egiten dituzten bankuekin harremanak eten eta entitate horien jarrera salatuko duela jakitera eman du.

Azkenik, herritarren eskubideen defentsa bermatzeko legediaren aldaketa eskatu eta herritarren etxebizitzak eskubide babestu nahi du Udalak. Horregatik, gai honetan bankuek eta Espainiako gobernuak duten jarrera ozen salatu nahi du.

Igandean Azkorterera

Oinatzekoek Lasarte-Oriako mugak irteera antolatu dute Azkorten bukatzeko

Azkorteko erromeria izango da igandean maiatzaren 5ean 11:00etan hasita musika, bertsolariak eta herri kirolak ez dira faltako. Oinatzeko kideek ere egun honetarako Lasarte-Oriako mugak irteera antolatu dute baina ez dute ibilbide osoa egin eta Azkorten amaïtuko dute bertan hamaiketako egiteko.

Urteroko hitzorduari kale egin gabe, aurtenera Ttakun Kultur Elkarteak Azkorteko erromeria antolatu du.

Maiatzaren 5ean, Santa Krutz egunaren osteko lehen igandean izango da.

Egitaraua goizeko 11:00etan hasiko da ermitan ospatzen den mezarekin. Honetan ohi bezala Alboka abesbatzako kideek

abestuko eta Amalur eskolako gazteek trikitia joko dute.

Horren ondoren, festak ermitako kanpoaldean jarraitu du. Amalur eskolako gazteek jarraituko dute giroa berotzen euren trikitixa eta pandero doinuekin dantzarako tartea eskainiz.

Bertsolariak izango dira eta baita herri kirolak ere. Hauetan arituko dira herriko



Herri kirola, bertsolariak eta musika izango dira nagusi Azkorten igandean.

Telleria harri jasotzaileak eta Aratz Mugerza eta Jokin Alkizalete aikolariak.

Jubilatuaren egoitzatik autobusa abiatuko da Azkorterera 9:00etatik aurrera eta goian,

hamaiketako egiteko pintxoak eta edaria egongo dira salgai.

Oinatzekoak Azkorten

Bestalde, Oinatz taldeak Lasarte-Oriako mugak irteera antolatu du iganderako ere.

Jalgitik aterako dira 9:00etan eta ibilaldiari amaiera borobila emateko, Azkorten egingo dute hamaiketako. Ez da ibilbide osoa egingo hain zuzen Azkorten bukatu eta bertako giroaz gozatu ahal izateko.

Oinatz taldekoek herritarrek herriko mugetatik ibilbidea euren egitea animatzen dituzte.

Amaraun jaialdi erraldoia larunbatean Okendo plazan

Etorko txikienek aukera paregabea izango dute ondo pasa eta lagunekin gozatzeko. Urteroko hitzorduari jarraiki larunbatean, maiatzak 4, Amaraun klubekoek jaialdia egingo dute Okendo plazan.

11:00etatik aurrera, puzgariak eta hainbat tailer egiteko aukera egongo da, horien artean, globoflexia, pultserak, hankapaloak eta trentzak.

13:00etan buruhandien txanda izango da eta,

13:30ean Amaraun klubeko bazkideen bazkaria egingo da, makarronada.

15:30ean, puzgari, tailer eta jolasekin jarraituko dute haurrek. 17:30ean Gazte Klubeko gazteek bingoa egingo dute. Inauterietako arrakasta ikusita gaztetxoek gogoz prestatu dute eta plazan daudenei parte hartzeko gonbita egingo diete.

Jarraian, mozorroen desfilea egingo da. Eta jaiari amaiera emateko txokolata

jana eta Mugi Mugi dantzaldia izango dira.

Parte-hartzea

Jaialdian parte hartzeko gonbitea luzatzen zaie herriko haur eta gaztetxoei eta gurasoei gogoratzen zaie bazkarian parte hartzeko aurrez izena eman beharko dela Ttakuneko bulegoan Maiatzaren 2a baino lehen. Eguraldi txarra egingo balu, Michelin egingo litzateke jaialdia.



Mozorroren desfileak iaz arrakasta handia izan zuen eta haur askok parte hartu zuten.



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Foto depilazioa argi pultsatuanekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!



ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza
- segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak
- barandak
- kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateca



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Bertsolaritzan ere emigrazioa

“Hango eta hemengo” bertso saio berezia izango da maiatzaren 4an Manuel Lekuonan

Ostiralean Jon Maia bertsolariak “Emigrazioetik bertsolaritzara” hitzaldi berezia eskaini zuen Semblante Andaluz elkartearen. Honetan emigrazioaz eta euskal kulturaren murgiltzeko egindako ibilbide pertsonalaz hitz egin zuen gaztekeraz. Hitzaldi honek Ttakun Kultur elkarteak maiatzaren 4ean antolatuko duen Udaberriko saio bereziarekin du lotura. Aurtengoan “Hango eta hemengo” izango du izenburu bertso-saioak eta emigrazioa izango da gai nagusia.

Arroa egiten da Jon Maia bertsolaria gaztekeraz entzutea. Baina ostiralean, Semblante andaluz elkartearen horrela izan zen. Arrazoa Ttakun kultur elkartearen Semblante andaluz elkartearen laguntzaz antolatutako “Emigrazioetik bertsolaritzara” edo “De la emigración al bertsolarismo” hitzaldia izan zen.

Honetan Jon Maiak, ama Extremadurako eta aita Zamorako duenak, bere esperientzia pertsonala azaldu zuen.

Jose Pérez Acosta Semblante Andaluzeko lehendakariak eman zion hasiera ostiral gaubelari, hainbat gogoeta egiteko aukera ematen duten hitzekin: “Guk bi kulturak ditugu nahasia, jai ginen tokiko kultura eta bizi garenekoa; hori urguilu bikoitza da guretzat eta txikitxoei ere euren jatorria zein den eta era berean non bizi diren barneratzen saiatzen gara. Bada-

kizue, zuen etxean zaudete”.

Azken hitz horiek Atsotakar auzoan kokatutako Semblantearen egoitza lehenengo zapaldu zuten hamarnaka herritarrei zuzendu zizkien. Jende lepo baitzegoen Semblante Andaluz, euskaldun eta erdaldunak bildu ziren bertan, haur, heldu eta zaharrek. Batzuk lehenengo pertsonan bizi ahal izan zuten herrian badela eurenaz gain beste errealitate bat, beste kultura bat.

Urretxun jaioa izan zela kontatu zuen Jon Maiak, 40 urte dituela, umetan bere abizen erdaldunak zerrendatzeak lotsa ematen ziola ere bai, eskola nazionalekoei harrira egiten zirela, aitzak euskaraz ikasi ahal izan zuela semeei euskaraz egiteko grinak bultzatuta, baina ama, saiatuagatik, bidean geratu zela, eta horregatik egiten zutela etxean gaztelaniaz, beste familia askotan bezala: “Yo



Jon Maia Semblante Andaluz elkartearen hizketan eta ikusleak arretaz begira. Txintxarri.info webgunean dituzue kronika eta bideoak.

ahora veo mendiak, no montes; veo jendea, no gente; pero es una labor muy difícil, no todos lo consiguen”, esanez laburtu zuen jende askok egunerokoan bizi duen auzia.

Maiaren hitzaldiaren aurretik, Semblante Rociero abesbatzak kanta batzuk eskaini zituen eta Duende Flamencoko gaztetxoek dantzari egin zuten gitarren erritmora. Amaitzean, guztiek luntx ederraz gozatu ahal izan zuten.

“Hango eta hemengo”

Bestalde, hitzaldi honekin lotuta “Hango eta hemengo” udaberriko bertso saio berezia izango da maiatzaren 4an Manuel Lekuona kultur-etxean.

Honetan Jon Maia bera eta guraso etorkinak dituen beste bertsolari ezagun bat ere izango da, Xabi Paia.

“Bi bertsolariak erreferente dira euskal kulturari “baina beraien gurasoen hizkuntza komunitateak ez du hori eza-gutzen”, adierazi digute bertso saioko antolatzaileek. “Sortzez familia erdaldun batetik euskal kulturak duen kultur diziplina zailenetako

batean txapeldun izateraino”.

“Espaiar kultura erasotzaile baten irudipean ikusi dugu beraingandik datorren guztia eta ez da horrela”, dio talde antolatzaileak, “ezjakintasuna handia da baina jakinmina ere bai”.

Hauetaz gain, bertso saio honetan azken urteetan ohikoa den Andoni Egaña izango da areto nagusiko oholztan kantari, baita Lasarte-Oriako Earra! bertso eskolako bi kide ere, Unai Muñoa eta Ane Labaka.

Itzulpena

Gainera, bertso saio honek berezitasun bat izango du, bertsoak bat batean gaztelaniara itzuliko dira.

Zuzenean Manuel Lekuona aretoan egongo diren ikusleek pantailan Xabi Paia momentuan egingo duen itzulpena irakurri ahal izango dute.

Herritarrak

Ikuskizun berezi honetan, ohi bezala, herriko hainbat taldek eta herritarrek parte hartuko dute.

Semblante Andaluzeko bi taldek kanta eta dantzekin bertsoak alaituko dituzte. Eta

Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak, Zero Sette akordeoi orkestra, Erketz EDT, Hernaniko txalapartariak, Xumela koruko kideak, Aitor Atxega, Amaia Tejeria, Amaia Gonzalez Caballero eta Jose Mari Orbegoza dantzariak ere izango dira saio honetan haien musika eta dantzekin saioa borobiltzen.

Gai-jartzaile bereziak izango dira, herritarrak eta Solaskide egitasmoak lagunak, hain zuzen ere. “Euskal Herriatik kanpo jaio edo familia kanpokoak duten herritarrak aukeratu ditugu gai-jartzaile lanak egiteko”, azaldu digute antolatzaileek.

Sarrerak

“Hango eta hemengo” bertso saio berezi honetako sarrerak dagoeneko salgai daude internet bidez. Lasarteoriararen orrialdean eskuratu daitezke, 3,24 euroko prezioan.

Hurrengo egunetan Manuel Lekuona kultur etxe-ko leihatilan ere izango dira eskuragarri, 3,50 eurotar.

Antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte bertso saio ikusi eta entzutea, ederra izango delakoan.



Duende Flamenco eta Semblante Rociero dantzan eta kantuan hitzaldia hasi aurretik



Tfnoa 688618596
xabilasa@euskaltel.net

REFORMAS Javier Lasa

Konpromezurik gabeko aurrekontuak
Konponketak
Bainontzi aldatzea
Sukaldeak
Komunak

Presupuestos sin compromiso
Pequeñas Reparaciones
Sustitución de Bañeras
Cocinas
Baños

GIMNASTIKA.-

Eskolarteko txapelketan ederki

LOKEko gimnastek apirilaren 20ean, Eskolarteko eta Amateur mailako txapelketa izan zuten eta ederki lehiatu ziren guztiak bakarka, zein taldeka.

Kadete B mailan, Ainara Apeztegiak 7. postua lortu zuen eta Ariane Aguadok, aldiz, 9. postua. Biek borrekin egin zuten lan.

Kadete B mailako taldeak 2. postua lortu zuen egindako lanarengatik.

Jubenila B maileko taldeak ere ederki egin zuen lan eta 3. postua eskuratu zuen.

Aizpea Arroyo jubenila A mailan lehiatu zen zintarekin eta 7. postua eskuratu zuen.

Senior A mailako gimnastek ere zintarekin egin behar izan zuten lan eta Garazi Gomezek bigarren postua eskuratu zuen.



Aizpea Arroyo 2011-2012 denboraldiko zinta lana egiten.

Ez baliagarria

Maite Rueda entrenatzaileak aipatu digunez pozik dago neskek egindako lanarekin eta horrela jarraituz gero, "espero ez genuena gerta daiteke, finalerako txartela eskuratu dezakete guztiak".

Hala ere, jakin arazi digunez, jardunaldi hau ez da Gipuzkoako txapelketarako baliagarria izango eta maiatzaren 4ean, oraindik zehaztu gabeko lekuan izango dute sailkapen saioa.

Honetan bi tresnekin lan egin beharko dute maila guztiek. "Kadete B mailako taldeak bi saio izan ditu eta orokorrean hirugarren izan dira, baina ez dakigu hori ere mantenduko duten edo berriro lehiatu beharko diren," aipatu digu.

ATLETISMOA.-

Aire libreko denboraldi hasiera ona

E. Busto eta A. Galardi Gipuzkoako txapeldun dira

LOKEko atleta gazteek lehenago asteburuan junior, jubenil eta kadete mailako txapelketako jardunaldiarekin aire libreko denboraldia hasi zuten eta ederki gainera. Bi Gipuzkoako txapeldun eta Espainiako txapelketetarako lau marka gutxienera egin zituzten.



LOKEko gazteak gogor ari dira entrenatzen eta hori emaitzetan ikusten da.

Nerea EZIZARRRE

Aire libreko denboraldia hasi da eta hemendik aurrera txapelketaz txapelketa ibiliko dira herriko atletak. Lehenago asteburuan Gipuzkoako txapelketen lehen jardunaldia izan zen eta emaitza onak lortu zituzten.

Eneritz Busto gaztea, kadete mailan, 100 metroko hesilasterketako irabazle izan zen eta egindako denborarekin Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen lasarteoriatar gazteak.

Gipuzkoako txapeldun izan zen bigarren atleta, Ane Galardi dugu. Junior mailan jauzi hirukoitzeko lehiaketan gailen-

du zen eta Espainiako txapelketako marka gutxienera zentimetro batera geratu zen.

Hauetaz gain, beste domina eta marka gutxienera ere izan ziren txapelketa honetan.

Maider Rekondo jubenilak eta Oihana Igariz kadeteak zilarrezko eta brontzezko domina lortu zuen hurrenez hurren, pisu jaurtiketa proban.

Bestetik, Idoia Olasagastik kadete mailan eta Ane Galardi eta Maria Eugi juniorrek 100 metro lasterketan Espainiako txapelketarako marka lortu zuten.

Eta Jon Ander Bruño gazteak jauzi hirukoitzeko bere marka hobetu zuen.

Esperientzia

Bestalde, LOKE taldea Bida-

soa Atletiko taldeko filiala denez, asteburu honetan Espainiako txapelketako lehen jardunaldirako 7 atleta deitu ditu. Itoitz Rodriguez, Jon Altuna eta Gaizka Ormazabal Durangon izan dira lehiatzen eta Ane Galardi, Eneritz Busto, Maider Rekondo eta Maria Eugi, berriz, Manresan.

Infantil eta alebinak

Hau guztiaz gain, apirilaren 21ean, infantil mailako Eskolarteko txapelketa izan zen Ordizian. Sasoeatoko neska-mutilek parte hartu eta 14. postua lortu zuten.

Asteburu honetan berriz, Sasoea-Zumaburu eta Landaberri ikastolako infantil eta alebinak Gipuzkoako txapelketa izan dute.

KIROL UDALEKUAK.-

Udan ere kirolaz gozatu

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak 2001, 2002, 2003 eta 2004 urteetan jaiotako neska-mutilentzat kirol udalekuak antolatu ditu. Hauetan apuntatuz gero kirol eta joko ezberdinak praktikatu, Buruntzaldeko ibilbideak ezagutu edo hondartzara irteerak egingo dituzte herriko gaztetxoek.

Kirol udalekuak bi hamabostaldi ezberdinetan gauzatu dira, lehenengo hamabostaldia uztailaren 2tik 12ra izango da eta bigarrena, berriz, uztailaren 15etik 26ra.

Saioak goizez, 09:30etik 13:00etara, eta udal kirol instalakuntzetan izango dira. Taldeak 20 partaidekoak izango dira gehienez.

Hamabostaldiak 150 euro balio ditu kiroldegiko bazkideentzat. Eta kirol zerbitzuak



Igerilekuan, hondartzan, kiroldegian... kirol eta joko ezberdinez gozatzeko dute gazteek.

jakitera eman duenez, prezioan hamaiketako, bidaiak eta materiala sartuta daude. Gainera, kamiseta bat oparituko zaie.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko maiatzaren 2tik aurrera Kirolde-

giko bulegora hurbildu behar dira interesatuak, astelehenera ostiralera 10:00etatik 12:30ra eta 17:00etatik 19:00etara.

Plazak mugatuak direnez, inskripzio hurrenkera errespetatuko dela jakin arazi du Kirol Zerbitzuak.

LABURRAK.-

Gartzia bigarren Urnietako Mendi Lasterketan

Lehenago igandean, apirilaren 21ean, Urnietako Mendi lasterketa izan zen eta honetan Endika Gartzia herritarra bigarren iritsi zen helmugara, 01:57:03 denbora eginaz. Endikaz gain, Iraitz Arruabarrena herritarra ere lehen hamarren artean sartu zen, hau zortzigarren izan zen, 02:02:17.

Beste herritar batzuk ere parte hartu zuten 21 kilometroko proba honetan eta hauek dira haien denborak: Abel Herrero, 02:39:59; Mikel Calvo, 02:40:05; Iñaki Letamendi, 02:44:52; Javier Alonso, 02:44:52; Peio Fadrique, 02:45:44; Raul Martin, 02:55:12; Ibon Urdanpilleta, 02:56:18; Ivan Granada, 03:19:55; Alicia Rodriguez, 03:23:23 eta Jaime Eleno, 03:23:23.

Garrido judoka hirugarren Euskadiko txapelketan

LOKEko judoek ez zuten zorte handirik izan apirilak 20 eta 21eko asteburuan. Hala ere, Oscar Garrido hirugarren izan zen Errenterian igandean izan zen kadete mailako Euskadiko txapelketan.

Honetan LOKEko bi judoek parte hartzen zuten, Oscar Garrido eta Fermin Balda eta hirugarren eta bosgarren postuak lortu zituzten hurrenez hurren.

Txapelketa hau baino lehen, infantil mailako Euskadiko Rakinga zen. Jorge Revuelta ez zuen egun ona izan eta ez zuen Espainiako txapelketarako txartela lortu.

Bestalde, larunbatean, berriz, Monzalbarban Aragoiko Nazioarteko txapelketan, Asier Sagastik lehiaketa utzi behar izan zuen lesionatu lehengo borrokan lesionatu eta gero.

Agenda

Astelehena 29, 18:00etan, Okendo plazan



Dantzaren eguna

Gaur, dantzaren nazioarteko eguna da. Kukuka antzerki eta dantza eskolak hau ospatzeko ekitaldi txiki bat antolatu du Okendo plazan. Adin guztietako herritarrek parte hartu ahalko dute mugimenduarekin zer ikusia izango duen ekintza honetan. Honetaz gain, dantza eguneko manifestua irakurriko da eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako ereserkia ere dantzatuko dute. Antolatzaileek parte hartzaileei eskolako kamiseta edo kamiseta berde bat eramatea eskatzen diete.

tso saio berezia. Jon Maia, Andoni Egaña, Xabi Paya, Ane Labaka eta Unai Muñoa eta herriko hainbat elkarte eta herritarrek parte hartuko dute. Sarrera, leihatilan 3,50 euro; internet bidez, 3,24 euro.

Erromeria

AZKORTE

Igandea 5, 11:00etan

Santa Krutz eguna ospatzeko asmoz, Lasarte-Oriako herritarrek erromeria egingo dute. Meza, bertsolariak eta herri-kirolak izango dira.

Ernaireren aurkezpena

XIRIMIRI ELKARTEA

Asteazkena 1, 13:30ean

Aurkezpen bazkaria egingo da.

OKENDO PLAZA

Asteazkena 1, 17:30ean

"Egin zazu behar duzuna!" lelopean hainbat ekintza, musika, malabarek etab egiteko aukera izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 2, 21:30ean

Ostegun zinea atalean, "La parte de los ángeles" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 5, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Los Croods" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

Igandea 5, 19:30ean

Helduen zinea atalean, "La parte de los ángeles" filma, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

pen kontzertua. Nocturnia, AOD eta Hiverland taldeen kontzertua. Sarrera aurretik, 7 euro; leihatilan, 10 euro.



Bertso saioa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 4, 22:00etan

"Hango eta Hemengo" Udaberriko ber-

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Apirila bukaera arte

Mundu bat GKE eta Euskal Herriko nekazaien elkartasuna elkarrekin antolatu, "Emakume nekazariak. Eskubide eta errealitateak" argazki erakusketa ikusgai izango da.

Bestelakoak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 29 - ostiala 5

Sahararen aldeko elkartasun azoka egingo da kafetegian.



Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 3, 23:45ean

IV. Euskal Metal Fest jaialdiaren aurkez-

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, apirilaren 29an, arratsaldeko 17:30etik 20:30ra. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta!

Udan begirale izateko

Udako Txokoak egitasmoan edo udaleku itxietan, uztaila eta abuztuan, begirale izan nahi duten gazteek orain dute aukera izena emateko.

Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskaraz komunikatzeko gai izatea dira.

Honetarako zenbait bide dituzte interesatuek: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke. Azken eguna maiatzaren 8a da.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordu-lari, bost betaurreko graduatu, patinete bat, bi mugikor, haur baten berokia eta motxila bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte Udaltzainen Bulegoan, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Uztaro Kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteok lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidera.

Sarean

Igo zure argazkiak Txintxarri.info-ra!

TXINTXARRI parte hartzailegoa izan dadin martxan jarri genituen sare sozialetako gure perfilak eta albisteetan iruzkinak egiteko aukera.

Behin baino gehiagotan animatu nahi izan zaituztegu zuen argazkiak gurera bidaltzea eta finenek egin ere bai! Euren inauteri, Korrikako argazkiak bidali zizkiguten gure argazki bildumak osatu ahal izateko.

Orain tresna berria martxan jarri dugu prozesu hau oraindik errazagoa izan eta zuen mugikor edota tabletatik zuzenean argazkiak gurera bidaltzeko. Gainera zuen argazkiak kudeatu ahal izango dituzte eta nahi duzuen hauek kentzeko aukera izango duzue.

Argazkiak atalean sartuta "igo argazkiak!" aukera aurkituko duzue. Hori bai, lehenengo aldiz sartzeko erregistratu egin beharko da erabiltzaile eta pasahitza eskuratzeko. Hauekin sartu eta argazkiak igo eta kudeatzeko lagungarri izango zaizkizuen argibideak aurkituko dituzte.

Adi! zuen argazkiak ez dira berehala ikusiko. Bertan azaltzen zaizuen moduan, TXINTXARRIko kazetariak hauek berretsi beharko dituzte.

Egun hauetan probatan egongo da tresna berri hau eta akatsak edota arazoak izatekotan eskertuko genizueke txintxarri@txintxarri.info helbidera helaraztea.

Animatu eta igo argazkiak!



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Hitzaldi ziklo arrakastatsua

Doluaren gaiak jarraipen handia izan zuen herrian

Danok Kide elkarteak Balioetan hezi hitzaldi zikloa antolatu zuen lehengo astean. Aurten gaia, "Arreta doluan direnei" izan da eta herritarrek jakinmin handiarekin jarraitu dituzte zikloko hiru hitzaldiak.

Osorik gaude. Aspaldian ez genuen hainbeste jende ikusi". Hori da Danok Kide elkarteko lagunek Balioetan Hezi hitzaldi zikloari buruz egindako balorazioa.

Lehengo astean, astelehene-tik asteazkenera, doluari buruz-

ko hiru hitzaldi izan ziren Manuel Lekuona kultur-etxean.

Danok Kideko lagunek adierazi digutenez, "lan ederra egin dute Izaskun Andonegi eta Mila Arce hizlariak. Hiru hitzaldiak gaia bere osotasunean landu dutela uste dugu, senideen heriotza, gai-

xotasuna eta heriotzaren onarpena eta haur eta gazteei nola hitz egin heriotzari buruz. Eta gainera, hori guztia, gozotasunez".

Herritar ugari

Honetaz gain, aurten hitzaldietako harrera oso ona izan dela azpimarratu dute. "Lehenengo egunean 150 bat pertsona bildu ziren. Herritar batek bere esperientzia kontatzeak zer ikusi handia izan zuen. Baina pozik gaude jende



Balioetan Hezi zikloko hiru hitzaldietan herritar ugari izan da.

gaztea eta ohikoa ez dena hurbildu zelako ere. Hirugarren egunean berriz, guraso gazte gehiago espero genituen baina ez zen horrela izan".

Gauzak honela, Danok Kideko lagunek eskerrak eman nahi dizkiete hurbildu ziren herritar guztiei eta hizlari egindako lanarengatik.

UDA KO TXOKOAK

2013

Duda!
EUSKARAZ UDA!!!

Izen ematea zabalik!!!

Ttakun Geltoki kalea 4 943 371 448 www.ttakun.com aisia@ttakun.com

bihe+

Zure
aukera

LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

- D.B.H.
- BATXILERRA

Batxiler modalitateak, D ereduak:

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA

1. ibilbidea. Zientziak eta Ingeniaritza
2. ibilbidea. Osasun Zientziak

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

1. ibilbidea. Giza Zientziak
2. ibilbidea. Gizarte Zientziak

Batxilerrerako
izen-ematea,
Maiatzaren 2tik 14ra

www.ieslasarte-usurbilbhi.hezkuntza.net

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277